



www.aralar-araba.net

HIRIGINTZA URBANISMO

Plan General Ordenación Urbana PGOU

Un Gobierno anti vecinal: la redensificación

Auzokiden kontrako gobernua: berrantolakuntza

BERRANTOLAKUNTZA: Etxebizitza berriak eraiki ahal izateko, zerbitzutara edo erabilera arruntara esleitutako orubeen erabileraren aldaketa da; horrela, populazio eta hiri dentsitatea gehituz.

REDENSIFICACIÓN: Es el cambio de uso de suelo, destinado inicialmente como parcelas de uso común o servicios, para construir nuevas viviendas, aumentando de ésta manera la densidad poblacional y urbanística



SITUACIÓN ACTUAL

La imposición que el Ayuntamiento pretende llevar a cabo con la “redensificación” de Salburua y Zabalgana es una falta de respeto más hacia sus habitantes. Imposición disfrazada de participación ciudadana al ofrecer 2 alternativas ya redactadas, y aclarando que “la redensificación se va a hacer sí o sí”, en palabras del Concejal de Urbanismo.

Las prisas por cerrar esta modificación del PGOU, que pretende corregir errores heredados del anterior alcalde del PP, Alfonso Alonso, y cuya vigencia se prevé de 20 años, junto a la precaria situación de las arcas municipales, hacen sospechar de las intenciones últimas de esta operación, anunciada como necesaria para cubrir la futura demanda de vivienda y para favorecer el crecimiento “hacia adentro” de Gasteiz, pero acechada por la sombra de la especulación y el comprensible malestar vecinal.

POSTURA DE ARALAR

Aralar considera positivo el crecimiento urbano “hacia adentro”, pero no creemos que ello justifique la prisa por asegurar la provisión de suelo edificable en terrenos destinados a otros servicios para unos barrios con necesidades de equipamiento aún sin cubrir.

La construcción de vivienda debería tener en cuenta la demanda, o se correrá el riesgo de recalificar terrenos donde nunca se construirá y de aumentar las viviendas vacías, perdiendo en vano suelo para equipamientos. Para cubrir la demanda, convendría recordar las 10.050 viviendas vacías de Gasteiz, y también los barrios que pierden población al no atenderse sus necesidades de servicios y mantenimiento.

Reivindicamos la creación de un espacio de participación vecinal donde consensuar un modelo de barrios y ciudad que no repita errores pasados y problemas presentes, lejos de intereses partidistas y donde quepan todas las gentes de Gasteiz.

ORAINGO EGOERA

Udalak, Salburua eta Zabalgana auzoen erredentsifikazioaren bidez, gauzatu nahi duen inposizioak auzokoekiko errespeturik eza adierazten du berriro ere. Parte-hartzeaz mozorrotutako inposizioa, aldez aurretik idatzitako 2 aukera eskaintzen, eta “erredentsifikazioa bai ala bai burutuko da” garbi esaten, Hirigintza Zinegotziaren hitzetan.

HAPO berraztertzea, Alfonso Alonso PP-ko alkate ohiak utzitako akatsak zuzentzen saiatzen dena eta 20 urte iraungo omen duena, ixteko lehiak, udal diru-kutxaren egoera larriarekin batera, operazio honen xedea zein izango ote den susmoa sortzen du, etorkizuneko etxebizitza-eskaria bete eta Gasteizko “barrurako handitzea” laguntzeko apropos iragarririk, baina espekulazioaren itzalak eta auzokoen haserre ulergarriak zelaturik ere.

ARALARREN JARRERA

Aralarrek “barrurako handitzea” positibotzat hartzen du, baina ez dugu uste horrek eraikitzekeo lurra hornitzeko lehia justifikatzen duenik oraindik ekipamendu-betebeharrak dituzten auzoetan, eta gainera behar horiek betetzeko dauden lursailetan.

Eskaria kontuan eduki beharko luke etxebizitzen eraikuntzak, edo inoiz ezer eraikiko ez den lursailak birkalifikatu eta etxebizitza hutsen kopurua handitzeko arriskua izango da, ekipamenduentzako lurra alferrik galtzen. Eskaria betetzeko unean, komeni da aipatzea Gasteizen 10.050 etxebizitza hutsik daudela, eta auzokideen premiak asetugabe. Hori dela eta, auzoen populazioa murriztu daiteke.

Iraganeko akatsak eta oraingo arazoak errepikatzen ez dituen auzo eta hiri eredia adosteko, auzo parte-hartze gunea eratzea aldarrikatzen dugu, interes alderdikoiak alboratu eta Gasteizko hiritar guztiak lekurik izan dezan.